

Noiz eguneratua:

2021/11/26



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

PREBENTZIO-NEURRIAK

COVID-19AREN PASAPORTEA

2021eko azaroaren 27tik
2022o urtarrilaren 7ra

Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua

Herritarren Arretarako Atala

AURKIBIDEA

1. COVID-19aren aurkako gomendioak eta neurriak

1. [Zer gomendio bete behar ditugu?](#)
2. [Zer establezimendutan aurkeztu behar dut COVID-19aren pasaporteak?](#)
3. [COVID-19aren zer motatako pasaporteak aurkez ditzaket eta noiz iraungitzen dira?](#)
4. [12 urtetik beherakoek aurkeztu behar al dute COVID-19aren pasaporteak?](#)
5. [Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea aire zabaleko espazioetan, batez ere pertsona asko biltzen diren ekitaldi sozialetan \(prozesioak, kabalगतak, etab.\)?](#)

2. COVID-19aren pasaporteak: nola eta non eskuratu

6. [Zer da COVID-19aren pasaporteak?](#)
7. [Doakoa al da COVID-19aren pasaporteak?](#)
8. [Non eskuratu dezaket COVID-19aren pasaporteak?](#)
9. [Nola identifikatuko naiz nire osasun karpetan sartzeko?](#)
10. [Zer urrats eginen ditud COVID-19aren pasaporteak eskuratzeko?](#)
11. [Pasahitza galtzen badut, nola lortuko dut beste bat?](#)
12. [Nola deskargatzen da COVID-19aren pasaporteak telefono mugikorrean?](#)

1 COVID-19aren aurkako gomendioak eta neurriak

1. G- Zer gomendio bete behar ditugu?

E-

1. Babesik onena **txertatzea** da.

Egiaztatu da txertatuta egon arren kutsatzen direnek sintoma arinagoak izaten dituztela; gainera, ospitaleratze eta heriotza kasuak murriztu egiten dira.

2. Barruko espazioak aireztatzea.

Aireztatzeak airea berritzea dakar, hau da, kanpoko aireak ordezteak barruko airea, kutsatuta egon daitekeena. Hori garrantzitsua da elkarrekin bizi ez direnak barruko espazioetan biltzen direnean. Ahal den guztietan aireztapen naturala egingen da; hau da, pareta kontrajarrietako leihoak edo ateak irekiko dira.

Aireztapena behartua bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu behar da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

3. Topaketa sozialak kanpoan egitea.

Aire zabaleko jarduerak dira seguruenak. Ezin badira kanpoan egin, **saiatu atzeratzen**. Ezin badira atzeratu eta barruan egiten badira, **ziurtatu aireztapena eta maskararen erabilera** egokia.

4. Jende pilaketak saihestea.

5. Gomendatzen da **txertaketa ziurtagiria edo proba diagnostikoaren emaitza negatiboa erabiltzea ekitaldi sozial pribatuetan**.

6. Eskuen higiena.

Gomendagarria da eskuak maiz garbitzea, urez eta xaboiez edo soluzio hidroalkoholikoak erabiliz.

7. COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak eta egon daitezkeen kasuen kontaktu estuak.

- COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...) agertzen direnean, beharrezkoa da norbera bakartzea eta osasun zentroarekin harremanetan jartzea.
- Baieztatutako kasu baten kontaktu estua diren pertsonak osasun zerbitzuaren jarraibideak bete behar dituzte.

Txertatuta ez badaude, berrogeialdiari eutsi behar diote handik 10 egunera PCR negatiboa jaso arte.

Txertatuta badaude edo gaixotasuna duela gutxi izan badute (gaixotu zirenetik 6 hilabete baino gutxiago igaro badira), **prebentzio neurri indartu** hauei eutsi beharko diete handik 7 egunera PCRa negatiboa izan arte:

- Maskara kirurgikoa erabiltzea beti.
- Pertsona kalteberekinekin kontakturik ez izatea.
- Ekitaldi sozialetara ez joatea.

Kasu guztietan, COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak agertzen direnean, beharrezkoa da norbera bakartzea eta osasun zentroarekin harremanetan jartzea.

SARS-CoV-2 hartzeko edo transmititzeko arriskua, maila txikiagoan bada ere, oraindik ere badago, txertaketaren pautak osoa izanda ere.

Garrantzitsua da, txertatuta egon arren, gomendio horiek betetzea, norbera, ingurukoak eta gainerako herritarrak babesteko.

2. G- Zer establezimendutan aurkeztu behar dut COVID-19aren pasaporteak?

E- 12 urte edo gehiago dituzten pertsonak COVID-19aren pasaporteak aurkeztu beharko dute (3 pasaporte motetako edozein da balioduna), honako lokal eta establezimendu hauetara sartzeko:

- Diskoteken lizentzia duten lokal eta establezimenduak
- Dantzalekuak
- Ikuskizunetarako kafetegiak
- Lizentzia berezia duten tabernak. Establezimendu horietan, ziurtagiria 00:00etatik aurrera eskatuko da, salbu eta 60 jankide baino gehiagoko edukiera duen jatetxe zerbitzua eskaintzen badute. Kasu horretan, establezimendua irekita dagoen ordutegi osoan eskatuko da pasaporteak.
- 60 jankide baino gehiagoko edukiera duten jatetxeak. Salbuetsita egonen dira unibertsitateetako eta enpresetako jantokiak
- 1.000 pertsonatik gorako edukiera izanik barneko gunetan egiten diren kultura arloko ekitaldi jendetsuetan, jan-edanak eskaintzen direnean

Establezimendu horietan guztietan:

- Hiru ziurtagirietako edozein aurkezten ahalko da **euskarri digitalean edo paperean**.
- COVID-19aren pasaporteak sartzeko unean bakarrik eskatuko da.
- Datuak ez dira gordeko, ezta horiekin fitxategirik sortuko ere.
- **Nahitaezkoa da maskara beti jantzita** eramatea. Maskara jateko edo edateko unean bakarrik kentzen ahalko da, eta horrelako unean artean maskara berriro erabili beharko da.
- Ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea **aire zabaleko espazioetan eta terrazetan**.
- **Kartel bat** jarri beharko da sarreran, ikusteko moduko toki batean, sartzeko orduan ziurtagiria eskatuko dela jakinarazteko.

3. G- COVID-19aren zer motatako pasaporteak aurkez ditzaket eta noiz iraungitzen dira?

E- Osasun zerbitzu publiko batek edo Osasun Departamentuak baimendutako zentro batek eman behar du COVID-19aren pasaportea edo ziurtagiria.

Baliozkotzat jotzen dira hiru motatako COVID-19aren pasaporteak edo ziurtagiriak:

1. Txertaketa ziurtagiria

- Egiaztatzen du titularrari COVID-19aren aurkako txertaketa pautu osoa eman zaiola baimendutako txertoetako baten bidez.
- Ez du iraungitze datarik.

2. Proba diagnostikoaren ziurtagiria

- Egiaztatzen du titularrak COVID-19ren proba diagnostiko negatiboa duela.
- PCR probari dagokionez, 72 ordura iraungitzen da; eta antigenoen probari dagokionez, berriz, 48 ordura, proba edo testa egiten denetik.
- Autotest bidez edo farmazietako profesionalek egindako probak ez dira baliozkoak izanen.
- Halaber, Osasun Departamentuak aurreko 72 orduetan egindako proba diagnostikoaren emaitza negatiboa dela adierazteko igorritako SMSa onartuko da, baita Osasun Departamentuak baimendutako laborategi pribatuek emandako ziurtagiria ere.

3. Sendatze ziurtagiria

- PCR probaren bidez diagnostikatu den COVID-19a pasatu ondoren ematen da.
- 180 egunera iraungitzen da, hasierako emaitza positiboaren datatik zenbatzen hasita.

- Halaber, Osasun Departamentuak aurreko 72 orduetan egindako proba diagnostikoaren emaitza negatiboa dela adierazteko igorritako SMSa onartuko da, baita Osasun Departamentuak baimendutako laborategi pribatuek emandako ziurtagiria ere.

4. G- 12 urtetik beherakoek aurkeztu behar al dute COVID-19aren pasaporteak?

E- Ez, ez dute zertan aurkeztu.

5. G- Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea aire zabaleko espazioetan, batez ere pertsona asko biltzen diren ekitaldi sozialetan (prozesioak, kabalgatak, etab.)?

E- Nahitaezkoa da maskara erabiltzea **erabilera publikoko barneko espazioetan** beti. Baita **aire zabaleko** espazioetan ere, batez ere **pertsona asko** biltzen diren **ekitaldi sozialetan** (prozesioak, kabalgatak, etab.), **1,5 metroko distantzia mantentzea ezinezkoa denean**.

Nafarroako Gobernuko departamentuek, toki entitateek eta operadore publiko eta pribatuek beharrezko antolaketa neurriak hartuko dituzte ekitaldiak eta ekitaldi sozialak egiteko, jendetzak eta COVID-19aren ondoriozko kutsatzeak transmititzeko arrisku handiko egoerak saihesteko.

2 COVID-19aren pasaportea: nola eta non eskuratu dezaket?

6. G- Zer da COVID-19aren pasaportea?

E- EBko COVID-19aren pasaportea edo ziurtagiri digitala Europar Batasuneko estatuen artean errazago mugitzeko dokumentua da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Osasun Departamentuak COVID-19aren pasaporteari buruz prestatu duen [gidaliburu osoa](#).

7. G- Doakoa al da COVID-19aren pasaportea?

E- Bai, doakoa da.

8. G- Non eskuratu dezaket COVID-19aren pasaportea?

E- Bi bide dituzu:

- **Internet bidez:** COVID-19aren pasaportea zure osasun karpeta pertsonalean dago: Karpeta horretan sartzeko, erabili esteka hau:
 - http://www.navarra.es/home_eu/Temas/Portal+de+la+Salud/Ciudadania/Actualidad/Carpeta+Personal+de+Salud/
- **Aurrez aurre:** paperezko formatuan eskuratzen ahalko duzu edozein osasun zentrotan. NAN, AIZ edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri bat aurkeztu beharko duzu zure burua identifikatzeko. Halaber, nahi izanez gero, bertan pasahitz bat emanen dizute, zure osasun karpeta pertsonala aktibatzeko.

9. G- Nola identifikatuko naiz nire osasun karpetan sartzeko?

E- Egiaztagiri hauetako bat erabil dezakezu zure burua identifikatzeko:

- NAIKP + pasahitza, Cl@ve (iraunkorra), ziurtagiri digitala edo NAN elektronikoa.



Oharra: NAIKP + jaioteguna erabilita ezin da COVID-19aren pasaportearen deskargatu.

NAIKP + pasahitza

NAIKP zure osasun txartelean agertzen da.



Nola eskuratu dezaket pasahitza?

- **Aurrez aurre:**
 - Zure osasun zentroan, ahal dela 13:00etatik 14:00etara bitartean.
 - Osasun Departamentuaren erregistro bulegoan (Tutera kalea 20, Iruña). Aurretiko [hitzordua](#) eskatu beharko duzu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- 16 urtetik gorakoak:
 - o Osasun txartela
 - o Telefono mugikorra
 - o Helbide elektronikoa.
- 16 urtetik beherakoak:
 - o Familia liburua
 - o Familia ugariaren edo guraso bakarreko familiaren txartela
 - o Aitaren/amaren/legezko tutorearen NANA (izan ere, horrek telefono zenbakia eta helbide elektronikoa jakinaraziko ditu erregistroa gauzatzeko).

Osasun zentroak pasahitza igorriko dizu adierazitako helbide elektronikora.

- **Internet bidez:** ziurtagiri digitala, Cl@ve iraunkorra edo NAN elektronikoa baduzu, [osasun karpeta pertsonalean](#) sar zaitezke, eta sartzeko pasahitza sortu. Pasahitz hori erabiltzen ahalko duzu telefono mugikorraren bidez sartzeko, gailu horretan ez baduzu instalatuta ziurtagiri digitala (ez da egokia Iphone 6rako).

Cl@ve iraunkorra

Oharra: Cl@ve PIN erabilia ezin da COVID-19aren pasaportea deskargatu.

Zure Cl@ve iraunkorra lortzeko, baimendutako bulego publiko batera joan beharko duzu.

- o Esteka honetan dituzu Nafarroako Gobernuaren [bulegoak](#). Gogoratu [aurretiko hitzordua](#) eskatu beharko duzula.
- o Horrez gain, Nafarroako [udal eta estatu bulegoen zerrenda](#) ematen dizugu, horietan ere Cl@ve iraunkorra eskuratzen ahalko baituzu.

Ziurtagiri digitala

Esteka honetan kontsulta ditzakezu ziurtagiri digitala eskuratzeko egin beharreko urratsak:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/internet-bidez-tramitatze-laguntza/ziurtagiri-digitala>


NAN elektronikoa

NAN elektronikoa erabilia sartzeko, NANaren irakurgailua izan beharko duzu.

[Hemen](#) eskuratu dezakezu NAN elektronikolari buruzko gidaliburu osoa.

10. G- Zer urrats egingen ditut COVID-19aren pasaportea eskuratzeko?

E- Behin osasun karpetan sartuta, txertaketa ziurtagiria deskarga dezakezu honela: sakatu "COVID-19a" fitxan, sartu "EBko COVID-19aren ziurtagiri digitala" atalean, eta hautatu "Ziurtagiria sortu".



Ziurtagiria sortu ondoren, hautatu "Deskargatu", eta dagoeneko prest duzu inprimatzeko.

11. G- Pasahitza galtzen badut, nola lortuko dut beste bat?

E- Pasahitza ahaztu bazaizu, sartu zure [osasun karpeta](#)n, eta hautatu:

“Ahaztu/blokeatu duzu zure pasahitza?”



Pasahitz berri bat sortzen ahalko duzu, osasun zentroan jakinarazi zenuen telefono mugikorrean SMSa jaso ondoren.

12. G- Nola deskargatzen da COVID-19aren pasaporte telefono mugikorrean?

E- Nafarroako Osasun Karpeta-ren aplikazioa Google Playn eta App Storen dago eskuragarri.

Aplikazioa zure gailu mugikorrean instalatu eta gero, zure kredentzialak idatzi beharko dituzu, aurreko galderetan azaldu den bezala.

Osasun karpeta-ren barruan zaudela, ordenagailu batetik sartzeko erabiltzen dituzun jarraibide berberak bete behar dituzu.

Behin barruan egonda:



En Carpeta Personal de Salud

App móvil



COVID-19aren zure ziurtagiria deskargatu, eta gailuko (mugikorra, tableta) deskarga-fitxategietan gorde dezakezu, edo, bestela, zure ziurtagiriaren QRra sar zaitezke.